

## BILBO

ARRAINEK eta zuhaitzek elkarren antza dute.

Antza dute uztaiengatik. Zuhaitzek enborrean dituzte. Enborrari zehar ebakia egin eta hantxe ageriko dira uztaiak. Uztai bakoitzeko urtebete, horrelaxe jakiten da zuhaitzaren adina zein den. Arrainek ere uztaiak dituzte, baina ezkatetan. Eta zuhaitzekin bezalaxe, uztai horien-gatik dakigu zein den animaliaaren adina.

Arrainak beti ari dira handitzen. Gu ez, gu txikituz goaz behin heldutasunera iritsita. Gure hazkundera gelditu egiten da eta hezurak elkartzen hasten dira. Uzkuertu egiten da pertsona. Arrainak, ordea, hil arte hazten dira. Gazte direnean azkarrago, urteetan aurrera egin ahala mantsoago, baina haziz doaz beti arrainak. Eta horrexe-gatik dituzte uztaiak ezkatetan.

Arrainen uztaia neguak sortzen du. Arrainak gutxien jaten duen aldia da negua, eta gose garai horrek arrasto ilun bat marrazten du ezkatan. Gutxiago hazten delako negu sasoian. Udan ez baina. Goserik ez dagoenean ez da arrastorik geratzen ezkatan.

Uztai mikroskopikoa da arrainena, ez da itxura batean ikusten, baina hortxe dago. Zauri bat izango balitz bezala. Ondo itxi gabeko zauri bat.

Eta uztaiak arrainetan legez, gertaera latzak geratu egiten dira gure memorian, gure bizitza markatu egiten dute, gure denboraren neurri bihurtu arte. Egun zoriontsuak, aldiz, azkar doaz, azkarregi, eta berehalaxe ahazten zaizkigu.

Arrainetan negua dena, gizakietan galera da. Galerak zehazten du gure garaia, harreman baten bukaerak, maite dugun pertsona baten heriotzak.

Galera bakoitza, uztai ilun bat sakonean.

BIZITZEKO hilabete eskas batzuk baino geratzen ez zitzaizkiola esan zioten egunean aitonak ez zuen etxera itzuli nahi izan. Gure amak lagundu zion goiz hartan medikuarenera, bere errain gazteak. Aitonak lasai entzun zituen medikuaren esanak. Den-dena entzun zuen txintik esan gabe, eta ostein, medikuari eskua luzatu eta adeitasunez agurtu zuen.

Kontsultatik atera zirenean amak ez zekien zer esan. Isilune luze baten ondoren, autobuserantz egingo zuten galdetu zion aitonari. Berak ezetz.

“Ez gara oraindik bueltatuko. Egun-pasa egingo dugu Bilbon. Gauza bat erakutsi nahi dizut” esan zion eta irribarre egiten ahalegindu zen.

Aitonak Bilboko Arte Eder museora eramán zuen ama. Amak ez zuen egundo ahaztuko egun hura, nola hiltzera zihoala esan zioten egunean bertan museo batera eramán zuen aitonak. Nola ahalegindu zen aitona edertasuna heriotzaren gainetik jartzen, alferrik. Nola ahalegindu zen amak bestelako oroitzapen bat izan zezan egun hain latz harena. Aitonaren keinu hori betiko hartuko zuen gomutan gure amak.

Museo batean sartzen zen lehen aldía zen hura.

BERROGEITA bost urte beranduago joan nintzen ni museo berera. Koadro baten berri jakin nahi nuen, eta hartara. Aurelio Arteta margolariaren koadro baten az-tarnaren atzetik nenbilen, erdi ezabatuta dagoen pista bati jarraituko banio bezala, oso modu intuitiboan. Barruko ahots batek esaten zidan koadro hori garrantzitsua zela, ezinbesteko pieza izango zela idazten ari nintzen nobelan.

Koadroa izatez murala da, Ricardo Bastida arkitektoak Ondarroan uda pasatzeko zuen txaletean margo-

tua, hain zuzen. 1922. urteko udan pintatu zuen Artetak margoa txaleteko egongelan. 60ko hamarkadan, ostera, Bastida hil eta urte batzuetara, familiak saldu egin zuen txaleta. Etxea bota egin zuten pisuak eraikitzeko. Baina murala salbatu egin zen zorionez. Hormatik atera eta Bilboko museora eraman zuten Artetaren artelana. Museoan dago ikusgai geroztik, goiko solairuko geletako batean.

José Julián Bakedano, museoko arduradunetako batek erakutsi zidan murala. Garai batean txaleteko egongelako hiru paretak hartzen zituen. Horien aitzinean begiratokia zegoen, itsasoari begira egoteko. Museoan, baina, triptiko baten moduan dago jarrita. Erdi-erdian erromeria baten errepresentazioa ageri da, horixe da piezarik handiena. Eta hegaletan gainontzeko bi koadroak datoz. Bata garai-ko emakume batena da eta errenazimenduko venusaren jarrera bera du. Bestea bikote gazte bat da, solasean arbolaren abarora.

Muralari lehen begiratua eman eta koloreak ditu harriarri. Kolore bizi-biziak erabiltzen ditu Artetak mendiko auzo bateko erromeriara doazen neska-mutilak erretratatzeko: berdeak, urdinak, lilak. Aurretik sekula egin ez zen moduan.

“Hasieran, zenbait kritikok ez zuen begi onez ikusi Artetaren obra. Pintatzeko kolorezko betaurrekoak jartzten zituela zioten, burlati” esan zidan Bakedanok. “Nabari zitzaizkion Artetari Parisen pintura ikasten egon zeneko urteak. Montmartren hartu zuen etxea eta hantxe maitemindu zen Toulouse-Lautrec eta Cézanneren lane-

kin. Baina sekula ez zuen guztiz hautsi nahi izan tradizioarekin. Horrexegatik, bere koadroek kolore biziekin pintatutako taberna zahar bat ekartzen didate gogora, modernoak dira baina xarma galdu gabe”.

Muralean bi mundu ageri dira, biak elkarrekin. Alde batetik baserritarrak daude eta beste alde batetik kaletarrrak. Baserriko neskak era tradizional batean daude jantzita. Orkatilaraino heltzen zaie gona, zapia buruan eta eskoterik gabe. Aitzitik, hiriko neskek ez dute horrelako trazarrik. Haien soinekoak arinak dira, haizeak mugitzen ditu. Gona laburragoak dituzte, belaunburuak agerian utzita eta eskoteak ere zabal-zabalak. Paparrean, gainera, bitxiak daramatzate. Baserritarren aldean jarrera erakargarria dute hiriko neskatilek, ikuslea kortejatzen ariko balira bezala. Nabari-nabaria da *Art-déco*aren eragina, 20ko hamarkadako baikortasun hori darie pinturei.

“Koadro honek mundu zaharretik berrirako jauzia azaltzen du, eta baserritarren eta kaletarren arteko kontrasteak areagotu egiten du hiriko neskatilen erotismoa” zehaztu zidan Bakedanok.

Bastidaren etxeko murala, egiatan, entsegu bat baino ez zen. Aurelio Artetak ez zuen menderatzen behar bezala muralaren teknika eta arkitektoak bere etxeko egongela utzi zion probak egin zitzaizkion. Benetako lana geroxeago etorriko zen. Ricardo Bastidak berak diseinatu zuen Madrilen Banco de Bilbaok izan behar zuen egoitza. Haren ordura arteko lanik behinena izango zen Alcalá kalean bertan jasoko zuten erakina. Bankuaren eta, oro har, Bilboko hiriaren sinbolo izan behar zen egoitza. Indarraren

eta modernitatearen ikurra. Lan hark finkatuko zituen hala Bastidaren nola Artetaren ibilbideak, eta ezagun egingo zituen Euskal Herritik landa.

Bastidak Aurelio Arteta nahi zuen bankuko halleko pinturak margotzeko. Txikitatik ezagutzen zuten elkar eta bi-bien bizitzak paretsu joan ziren, bata arkitektura-ren bidetik eta bestea pinturatik. Artetak Bilboren alegoria bat pintatuko zuen bankuko sarrerako gela biribilean. Portuko langileak, labe garaietakoak, baseritarrak, arrain-saltzaileak eta beste. Eginbehar eskerga zen hura, hamar mural baino gehiago, eta gainera azalera irregular batean.

Artetak enkargua onartu zuen baina bere burua trebatu nahi zuen lehenago. Zehatza zen bere buruarekin, kosta egiten zitzaion lan bat bukatutzat ematea. Behin, handik urteetara, Mexikoko erbestean, bukatu gabe eta oihal batekin estalita zegoen koadro bat begiratzen saiatu zen erosleren bat, tapakia kenduta. Artetak hura ikusi zuenean, amorruez, espatularekin zauria egin zion aurpegian. Bere onetik ateratzen zuen gauza bakarra omen zen hura.

Perfekzionista muturreraino, xehetasun guztiak zaintzen zituen Artetak. Koadroak sinatzeko ez zuen arreta handirik jartzen pintoreak, izenperik gabe uzten zituen askotan, axola ez balitzaio bezala. Eta diru kontuetan ere baldarra zen. Hala eta guztiz ere, pintatzen gorputz eta arima aritzen zen. Eta Ondarroako murala egiteko ere Madrildik ekarrarazi zuen ura, gero Madrilen pintatzerakoan margoen urak dentsitate bera izan zezan. Materialik

onenak aukeratu zituen. Harea, Markinako marmol hauts fina izango zen.

Artetari buruz gauza asko nituen entzunak, baita haren izaerari buruz ere. Pintore maitatua izan zen bizian. Kontserbadoreek, nazionalistek eta sozialistek ongi ikusia, “bere izaera lotsatiak beharbada izan zuen zerikusirik horretan” argitu zidan Bakedanok.

Entzuna nuen halaber nola egin zuen ihes Mexikora gerra garaian. Gernikako bonbardaketa izan eta berehala, koadro esanguratsu bat pintatzeko agindu zion legezko gobernua Artetari. Mundu guztiak jakingo zuen horrela zer gertatu zen Gernikan, zelako sarraskia egin zuten bertan naziek. Bere bizitzako lana izango zen hura. Hala ere, ezetz esan omen zion Artetak enkarguari. Gerraz nekatuta zegoela azaldu zuen, berak nahiago zuela familiarekin bildu eta Mexikora erbesteratu. Gero, enkargua Pablo Picassori iritsi zitzaion. Eta ondotik datorrena guztiok ezagutzen dugu. Artetaren karrerari jautzi handia izango zen Gernikari buruzko koadroa egitea, baina ezezkoa eman zion. Artea baino nahiago izan zuen bitzita. Gerokoan gogoratua izatea baino gurago familiarekin elkartzea.

Askori akatsa irudituko zaio Artetaren aukera. Nola gal dezakeen bere bizitzako aukera, unean uneko erreakzio batengatik. Nola jarri zuen sorkuntzaren gainetik maite zuen jendea. Areago, batzuek ez diote hori barkatu ere egingo, pentsatuz sortzailea sormenari zor zaiola beste gauza guztien gainetik.

Behin baino gehiagotan galdetu izan diot neure buruari zer egingo nuen nik Artetaren atakan egon izan baintz. Zein bide aukeratuko nuen.

Ezin da esan, egoera bera bizi behar da horretarako. Baina horixe da askotan artistak aurrean izaten duen bigurutzeta. Bizitza pertsonala ala sorkuntza. Artetak lehenengo bidea hautatu bide zuen, eta Picassok bigarrena.

José Julián Bakedano bere zereginetara itzuli zen bulegora, baina aurretik museoan Artetaren muralari buruz zegoen dokumentazioa eman zidan: nola atera zuten murala teknikariek Bastidaren etxetik.

Hala eta guztiz ere, aholku bat eman zidan. “Muralari buruz gehien dakiena Carmen Bastida da, arkitektoaren alaba, onena berari deitzea izango da” eta post-it batean luzatu zidan emakumearen telefonoa, “esaiozu nire partetik deitzen diozula” esan eta bere zereginetara itzuli zen Bakedano.

Ni artean geratu egin nintzen muralari begira, pentsakor. Zerion baikortasunak erakartzen ninduen bereziki. Artetaren eskuaren trazuetatik sortzen zen energia hark. 1922ko uda hartan Artetak eta Bastidak itxaropen handiak zituzten beren lanean, ez zioten etorkizunari beldurrik. Indar horrek liluratzen ninduen. Jakin gabe zer gertatuko zitzaien urte gutxiren buruan.



AITONARI buruz ez dakit gauza gehiegi. Liborio Uribe. Ni jaio nintzenerako hila zegoen eta aitak ez zuen gauza handirik kontatzen bere aitaren gainean. Ez zen hura iragan zale. Itsasgizona izaki, nahiago zuen etorkizunari begiratu. Gure amaren familiakoak bai, ostera, mila kontu dakizkigu amaren aldekoak, halakoren eta bestelakoren istorioak. Baina aitaren partekoak oso gutxi. Beharbada horrexegatik sortzen zidan aitona hark jakin-mina.

Aitak kontatzen zituen gauza apurren artean bazen ume sasoiko oroitzapen bat, udako bizimoduari buruzkoa. Entzuna nion aitari txikitan hondartzan egoten zela egun osoan, aitonak udatiarrentzat hondartzan zituen oholezko aldageletan. Gurasoei laguntzen zien hainbat zereginetan; udatiarrei ura konketan eraman, garbitzen lagundu, hanketatik hondarra kendu eta beren bainuko arropak hagetan eskegi. Irudikatzen dut isil-isilik lanean, ura eraman eta arropak jasotzen, eta bien bitartean udatiar haiek esaten zituzten kontuak aditzen.

“Ondo gogoan dut zure aita, mutil liraina zen eta langilea” esan zidan Carmen Bastidak Bilboko etxera bisita egin nionean. “Nire bizitzako urterik onenak izan ziren haiek. Niretzat bizitzak ez zuen kezkarik, ez zuen nekerik orduan”.

Bastida familiak hiru kaseta zituen hondartzan. Hondarraren goiko aldean jartzen zituzten, haitzetatik hurbil. Alboan nudismo terapeutikoa egiten zutenen partzela zegoen, oihal ilun eta garai batez babestua. Zuri-beltzezko argazkietan jasota datoz hondartzako egunak. Argazkiak

erakutsi eta pertsona bakoitza nor zen azaltzen saiatu zen Carmen. Bastidaren alabak zioenez, margolariak, musikariak, arkitektoak, astronomoak biltzen ziren hondartzan bastidatarren kasetetan. Bilbotik eta Madrildik etorritakoak gehienak. “Nik maiteena, baina, herriko gizon bat nuen, Liborio, berak kontatzen zizkigun ipuinak”.

Kasetak gobernatzea ez zen aitonaren ogibide bakarra. Bazuen txalupa txiki bat ere arrantzan egiteko, “Dos Amigos” izenekoa. Zer pentsatua eman izan dit beti ontzia-aren izenak: “Dos Amigos”. Zergatik jarri ote zion izen hori aitonak, nondik atera ote zuen izen bitxi hori. Eta aitona bera bazen bi lagunetako bat, nor izan ote zen bestea.

Beste hori aurkitu nahi nuen, zergatik ezabatu zen haren arrastoa. Haserretu egingo al zen aitona lagun harekin. Galdera horiei erantzun nahian pistei tiraka hasi nintzen duela urte batzuk. Sentitzen nuen “Dos Amigos” horrek bere barruan nobela bat zuela, desagertzen ari den arrantza munduari buruzko nobela bat. Baina hori hasierako asmoa baino ez zen. Eta nobelarako datuen bilaketa horrek nik espero ez nituen bide batzuetatik eraman nau, ezusteko askorekin egin dut topo.

ARRAINEN adina jakiteko ezkatetako uztaiak zenbatu behar dira, eta urte bat gehitu. Larbak direnean ez baitute ezkatetik arrainek. Aingiren kasuan lau urte gehitu behar dira. Lau urtetan izaten dira-eta larba aingirak.

Lau urte behar dituzte, era berean, Atlantikoa zeharkatzeko. Sargazoetako itsasotik Bizkaiko golkorako bidea egiten dute denbora tarte horretan aingiraren kume txikiek.

Nire hegazkinak zazpi ordutan egingo du distantzia bera. New Yorkerako hegaldia hartuko dut gaur bertan, Bilboko aireportutik.